

	HEZKUNTZA IKUSKARITZA		KALITATE ESKULIBURUA
	II ERANSKINA		KE
	KALITATE POLITIKA		2022-09-01 Orr. 1/1

Irakaskuntzaren kalitate eta zuzentasunari laguntzeko faktorea da Hezkuntza Saileko Hezkuntza Sailburuaren menpeko Hezkuntza Ikuskaritza, hezkuntza-legeriak xedatutakoaren arabera.

Horiek horrela, irakatsi eta ikasteko prozesuetan parte hartzen duten guztiek legeak betetzea, haien eskubideen bermea eta eginbeharrak beteko dituztela segurtatuko du Hezkuntza Ikuskaritzak, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko laguntza emango du eta hezkuntza-prozesuak aurrera eramateko era ebaluatu, aholkatu eta ikuskatuko du.

Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzuak ematen dituen pertsonala (ikuskariak eta administrazio-pertsonala) da, helburu horiek betetzeari begira, aktibo nagusia. Ikuskaritza Nagusia eta burutza desberdinak izango dira lider hierarkikoak, lurraldetasunaren, parte-hartzearen, espezializazioaren, profesionaltasunaren, talde-lanaren eta emaitzak ebaluatzearen antolaketa-printzipioen arabera eta, halaber, pertsonalaren motibazioaren eta ongizatearen alde egingo dute lan, haren giza garapena eta garapen profesionala sustatuz.

Aurrekoarekin batera, helburu horiek betetzeko Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduerak behar bezala kudeatu behar direla uste dugu. Betiere ikuskari bakoitzaren eguneroko jardueratik abiatuta, funtzionamendu egokia segurtatu behar da, esleitutako jarduerak era eraginkorrean gauzatuko direla bermatzeko hezkuntza-komunitatea, hezkuntza administrazioa eta Ikuskaritzako kideak beren erantzukizunak betetzean emozionalki indartuta eta asebeteta egotea.

Horretarako, kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarri behar du Hezkuntza Ikuskaritzak. Sistema horrek prozesuen araberrako kudeaketa-ikuspegi bat izango du eta helburuak ondorengoak izango dira:

1. Alde interesatuen (ikastetxeak, ikasleak, familiak eta, oro har, hezkuntza administrazio arduradunak) premiei eta itxaropenei erantzuna ematea.
2. Hezkuntza Ikuskaritzari esleitzen zaizkion jarduerak eraginkortasunez gauzatuko direla bermatzea. Horretarako, aplikatzeko legeria eta Hezkuntza Sailak ezarritako argibideak betiere bete beharko dira.
3. Hezkuntza Ikuskaritza osatzen duten pertsona guztien parte-hartze aktiboa sustatzea kalitatea kudeatzeko sistemaren garapenean eta etengabeko hobekuntzan.

Ikuskaritzaren jarduera gidatzen duten estrategia desberdinak, kalitatearen helburuetan konkretatzen direnak, ezarri eta berrikusteko erreferentzia-marko egokia ematen du kalitatearen aldeko politika honek.

Hezkuntza Ikuskaritzak politika hori komunikatzeko eta pertsonal guztiak eta alde interesatuek ulertzeko bideak ezarri ditu eta, sistema aldizka berrikusiko dela bermatzen du.